# Txopitea

Egun hauetan Donostiako Garibai kaleko geletan Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak Daniel Txopitearen pintura ezagutzeko aukera eskaintzen digu. Ordua zuen Danielek bere arte lanaren erakusketa Gipuzkoako hiriburuan erakusteko, duela zortzi urtetik honera Mallorca-n eta Canarias-en izan dituen arrakasten ondorean, auzoan etxean baino ezagunagoa bai zen.

Txopitearen lana, kasik haurra zenetik ezagutzen dut eta axola handiz jarraitu ere bai. Ermuan jaio bazen ere, gaztetxo zelarik etorri zen Eibarrera bere gurasoekin eta bertako artistak San Andres egunaren inguruan antolatzen zituzten erakusketetan lanak agertzen hasi zen. Materiaren erabilkeran ez ezik, egituraz eta kolorez ere laster hartu zituen pinturagintzaren gailurrak.

Lehen lehenik Piet Mondrian-en lerrozko egituraz etxe edo kaleetako paisajeak eginaz ideki zituen bide bereziak. Orduko Modigliani-ren erak urratuak zituen irudigintzan. Baina laster hasi zen berekiko bideetatik.

Bere bilaketan, "gauzak" zeritzan sailakin hartu zituen goi mailak 1974.ean. Handik, duela pare bat urte, landaretara jo zuen. Itxuraz abstrakziozko gaiak baziren ere, belarrak eta abar sasikatuak erabili zituen gaitzak. Bide hori utzi du, baina iduritzen zait esperientzia interesgarria izan zuela, kolore beroagoak eta biziagoak erabiltzera behartu zuanez. Baina, pintura era hark bere mugak zituen eta handik ez zuen aurrera egiterik eta krisi batean erori zen gure artista. Horregatik, berriz ere irudiz baliatzera etorri zen, lauki tipiagoak eginaz eta bizitzako gauzarik xinpleenak desdibujatuz.

Ez dakigu denborapasa ala lanarekin eten gabe jarraitzearren egin zituen. Dena dela, aspaldian egin zituen lanik maxkalenak ziren. Hala ere, hau zen paradoja, hau kontradizioa, igazko udaran Getarian jarri zuen erakusketa eta inoiz baino salketa hobeak izan zituen. Pintore haina merkatari izan balitz, diruginntzarako aukera ederra zuen Danielek. Baina, ezer baino lehen artista denez, bere zereginari leialki jarraituz, hara hor berriz ere bereagoa edo gogozkoagoa duen ekintzatik abiatua, sorketa berrien bilakari.

Oraingo hontan, Txopitea, duela zortzi urte hartu zituen goi-mailetako "gauzak" zirelako estilo, gai eta teknika eraz baliatuz dator, orduko elementuz baliatuz baina zerbait berri eskainiz. Bere nortasuna era hortan nabari da eta gure ikuspegitik jokabide zintzoagoa deritzagu.

Euskal Herri zaharreko gauza eta irudien oroitza dakar bere lanez, gauza izugarriak eta gauza liluragarriak, gure sineskera eta kondairetan oinarrituak. Gauzeri hiperrealisten tratamendua ematen daki, lauki guziaren sakona kolore bakarrez jantziz, lehenagoko beltz eta urdinez gainera zuriz ere bai. Baina gauzak heurak elkar nahasirik, kolore biziz gorputz hutsak estaliz, edo puskaketaz airean zabalduz, iradokiz, ikuslearentzat adierazpenez beterik.

Ez goaz esatera Txopiteagandik zer espero dugun; artista konsagratua denez, aurkitu duen bidetik saoatuaz jarraitzea aski du eginala sorketazko eta teknikazko hobekuntzak lortzeko. Eten gabe arituz datorren artista denez, gainerakoa horrek dakar.

Pinturas gainera serigrafia batzuk ere aurkezten ditu. Benetan interesgarriak artistaren esku-lana azagutzeko. Txopitea dibujugile ona da eta hor erakusten bai du bere nórtasunaren ahalmena. Serigrafia horietaz gehiago baliatu behar litzake, zabalkunderako besterik ez bada ere. Badakigu dibujo lan hori ez dela pintura mailakin konparatzekoa, baina ezta ere artistaren ekintzan gutiestekoa.

**Juan SAN MARTIN**

*Daniel Txopitea que estos dias expone en las Salas de Arte CAP, nos ofrece una muestra de su última producción plástica. Ha desterrado la serie "belarrak" de vegetales por donde discurría por el año 80, para recobrar los valores de aquella otra serie de "gauzak" con la que en el año 74 alcanzó la cúspide de su quehacer pictórico. Por el que Rafael Parello-Paradelo, extrajo la siguiente definición: "Las obras de Txopitea son capaces de evocar en el espectador atmósferas medievales, con todos los fanatismos y tortuosidades, leyendas y akelarres que aquella oscura y apasionante época era capaz de deparar y que se han perpetuado a través de los siglos, en las brumosas latitudes nórdicas vascas. Y ello, a base de la plasmación hiperreal de las telas y objetos cosas que hacen sentir la presencia, y aún el angustiado aliento del sentir humano, sin que sea necesaria su aparición física dentro de los límites del cuadro".*

*En esta ocasión no es el mismo de antes. El artista se vale de las experiencias del pasado e incorpora algunos elementos de la figuración fantástica o del realismo mágico de entonces para ofrecernos algo nuevo. Algo nuevo que germina en su proceso interno y que recobrando aquellas partes desconcertantes de su plástica, aporta una nueva imagen y colorido.*

*En su pintura utiliza técnicas manieristicas e hiperrealistas con un contenido de objetos superpuestos que generalmente van sobre un fondo plano empastado en negro, azul o gris, y últimamente, hasta en blanco, imprimiendo menos dramatismo.*

*Como en otra ocasión dije por la serie "gauzak", en la presente, a pesar de la transformación operada en la ejecución, repetiré una vez más que, el autor ha tenido el buen cuidado de no determinar ni aclarar el misterio que envuelve a las cosas, para no coaccionar la libertad interpretativa del espectador.*

*También presenta algunas serigrafías donde Daniel debería trabajar más, pues en las mismas se trasluce su capacidad de buen dibujante y al propio tiempo le ofrece temas para la investigación de formas que complementan su rica inspiración.*

# Juan San Martin-eri

Bilbo-ko egunkari "Deia", asteleenetan argitaratuten asi danik ona, ez dot HOJA DEL LUNES irakurtzen. Alan da guzti be, adiskide baten bidez, azkenengo HOJA DEL LUNES-en laugarren orrian, zu nire aurka sartu zarala jakin dot.

I.– *Ona emen, bai euzkeraz, bai erderaz, zuk nire aurka idatzi dozuna.*

1.– "Burubide hori da guretzat negargarriena. Euskararik jakin barik edo erdaraz eskribatuz edozein Urkiritar timoratok daukala berbia bururatzen jakona esateko; bere hizkuntzan dan herri bati erderaz edo halaholako eritziegaz informartzeak dakarren kalteaz jabetu barik".

2.– "Y que no nos venga ningún timorato Urquiri incordiador diciéndonos en castellano cómo hemos de escribir en vascuence, con el beneplácito de quienes por lo visto les gusta resolver lo ajeno en lugar de mostrar comprensión y permitir más espacio en euskera para conseguir los modelos ideales de la fe con obras".

II.– *Artu orain nire erantzuna, baña gogorkeririk barik; egia apala ta estitzua da-ta.*

1.– Nondik nora ausartzen zara, nitzaz idazteko: "Euskerarik jakin barik edo erdaraz eskribatuz edozein Urkiritar timoratok daukala berbia bururatzen jakona esateko"?

Noiz eta non nire maikide izan zara, ez ori bakarrik asmatzeko, baita idazteko be?

Zu ez zara bakarrik, euzkera dakizuna; beste batzuk be ba-gara euzkeraz idatzi ta itz egiten degunok: "edozein 'Urkiritar' izan arren.

2.– Ori gorabera, bai, ba-dago, nik eta beste askok erabilten dogun eta zuk egiten dozun euzkeraren erdi-erdian, muga anditxo bat:

–Zuk h-ez josirik idaz-lanak argitaratzen –Zuk h-ez josirik idaz-lanak; h-rik ez dogu dozuz.

Nik, barriz, eta beste askok, h-rik ez dogu bear.

–Zuk onango itzak sarri baño sarriago darabiltzuz: "eskribatuz", "timoratok", "informatzeak".

Nik barriz, eta beste askok, olango itzak ez dogu bear, gure gogoa azaltzeko. Eta badakizu zergaitik? Itz orreik, euzkeldunak erdaldunak baño.

Gauza bat da euzkera *batuaren* –baña benetako euzkeraren– alde jokatzea; eta beste gauza bat –guretzat negargarriena– euzkera*erdera batuaren* alde jokatzea.

3.– Gañera, auxe diñotzut. Zergaitik ez daike esan erderaz, edo lateraz edo grekoeraz, edo italeraz, eta abar, zelan euzkeraz itz egin edo idatzi bear dan? Ez dozu iñoiz ikusi, irakurri eliztirik erderaz idatzita, italera, latera, grekoera... ikasteko, baita irakasteko be? Olan ezkero, zergaitik ez daike esan erderaz, euzkera zelan idatzi bear dan?

4.– Azkenengoz, itxi bake-bakean "edozein Urkiritar-ari", euzkeraren alde –baña benetako euzkeraren alde– lan egiten; naiz eta erderaz idazten ba-dau be.

Agur biotz-biotzez.

**URKIRI-TAR TIMOTA, CMF**

# Barona etxea Arabako Villanañen

Batek ez daki zer izan daitekeen mendetako ohitura bati eranstea bizitzea eta zernolako barne indarrek bultzatzen duten hori egiteko. Nolanahi ere, zutabe hauetatik behin baino gehiagotan azaldu dut nire eritzia guzti honi buruz, ohiturak –tradizioak– iraunneraztea osasuntsu dela deritzaidala errepikatu dudalarik. Ohitura hoiek herriarengan sustraituta baldin badaude eta herri hori haiek aurrera ateratzeko prest badago.

Eta ez dakidala diodanean, esperientzi pertsonalari nagokio, noski, ereduei dagokienez, behintzat, begiak zabaldu besterik ez baita egin behar, oraindik gaurregun aintzinako zenbait ekintza eta erakuspeni, noizbehinka, bizia ematen baitzaie. Alde honetatik jarraituz gero, betiko eztabaidara iritsiko ginateke, hots, berremanaldi hoiek zernolako klasifikapenetan sartu behar diren erabaki nahi duen eztabaidara. Folklorekeria hutsa ote? Kondaira ikertzeko bidea? Ez dut uste kasu guztiak zorro berdinean sar daitezkeenik eta, are gutxiago, gaurkoan azaldu nahi dudana. Batzuek baronarren ereduaren modukorik ez dela mundu osoan aurkituko diote. Ene ustea apalagoa izanik, Arabako Villanañeko Barona sendiaren kasua Euskal Herrian den bakarra dugula esango dut. Eta zuzen nabilela deritzait.

Villanañe Gaubea deritzan lurraldeko herri txiki bat dugu. Eta bertan Barona sendiaren jatorria aurkitzen da, duela mende askotako agiriek erakusten diguten bezala. Baina gaur ez dakart gai hau baronarren gorabeherak aipatzearren, nahiz eta hoiek Arabako historian nolabaiteko garrantzirik euki, sendi horren iraupena gureganaino iritsi dela azaltzeko, baizik. Kasu hau arabarrentzat nahiko ezaguna izan arren.

Villanañen jauregi bat da, Barona sendiarena, eta, dirudienez –Mikaela Portillak esandakoari jarraiki–, XIVgn. mendean izan zen eraikia. Baina noiztik datorkigu famili honen ospea? Hainbat bider gertatzen den legez, jatorriaren hastapenak zirriborrotsuak ditugu eta egiazko historia fantasiozko geruza batez izan dela estalia dirudi, giza-gogoak egin ohi dituen irudi arrotzez apaindu duelarik.

Barona abizena Maria Pérez emakumearengandik datorrela dio edestiak. Nola, bada? Dirudienez, emakume hori Bizkaiko Jaun eta Aialako Konte zenarekin ezkondu eta handik gutxira alargun geratu zen. Gaztelako Alfontso VIgn.-aren aldeko borrokaldi batetan esku hartu ei zuen. Aragoiko Alfontso I.ngoa garaitzen zuelarik. Errege aragoiarrak bere ezpata apurtu zion zaldunari kasketa jaso zionean, eta emakume bat zela ikustean, "**ni mujer, ni señora, sino varón-a**" zela esan omen zuen. Eta bere ondorengo guztiek abizen hori eroan dute gizaldietan zehar.

Nolanahi ere, XIIgn. mendean jauregiko jauna **Martin Pérez de Barahona** izan zen, jauregian diren agiriek diotenez. Barahona, Baraona, Barona abizenak ezagunak ditugu, hirurek sustrai berdinak dituztelarik, eta honek zera pentsaterazten digu: edestiak darakusen abizenaren arrazoia edestiaren beraren zergaitikakoa dela. Baina ez dut lur labanetara sartu nahi eta bego, ideia nagusi bezala, mendetako pisuak errealitatea aldateraz dezakeela.

Kondairaren errealitatea agiri idatzietatik atera daitekeela garbi dago, eta, hoiei bagagozkie, Barona sendiaren izen zerrendak 1.139.raino garamatza. Zortzi gizaldi hauetan baronarrak onespen haundikoak izan dira, heuren urratsak mundu zabalean eman direlarik. Luze joko liguke, belaunaldiz belaunaldi, senidetarrik entzutetsuen ekintzak ezagutaraztea.

Rodrigo izena eraman behar izan dute jauregiko jaun guztiek eta gaurregun ere halaxe da. **Rodrigo Maria Barona** baita gure egunotan Villanañeko jauregiaren ugazaba. Jaun apalagoa duela hamabi gizalditakoak baino, bere lurrak berak goldatu behar baititu, jopu eta jaubeak iragan gizarte mota bateko oroitzapenak direlarik. Almena eta lubanarroko jauregia. Aintzinako defentsarako eraikitakoak txorien kabi eta ahateen iger lekuak bilakatuta.

Baina barruan denborak bere erlojuaren horratzak gelditu egin dituela dirudi. Artxibategi aberatsa, arte lan zoragarriak, izandako jaunen oroitgarri bitxiak..., arreta eta eztitasunez zainduta. Bertako edertasunaz ideiarik egin ahal izateko jauregia bisitatu behar da: osterantzean ezina zaigu han gordetzen denaren balorea nolakoa den asmatzea.

Bizitzen ari garen gizarteak aurrerapenari kurpilik jarri nahi diola ikusten dugunean, Villanañeko etxe honen eredu aurrean zenbait hausnarketa egin beharrean aurkitzen garela deritzait, azken Rodrigori txalo bero ixil bat eskaintzen diogularik. Tradizioari zintzo jarraitzen jakin izan duen jauregiko eguneko jaunak aparteko kultur-oharmenik erakutsi digu, lehen aipatutako aurrerapen horrek zer izan behar duen tokirik apalenetan argi eta garbi dutela ikus daitekeelarik. Eta toki apala esatean geografi-adierari nagokio, jakina.

Gorago nioen bezala, artikulu honen helburua ez zen sendiaren jatorria non dagokeen asmatzea ezta senditarren gorabeherak aipatzea ere. Ohiturari eustea –bere iratxetura guztiekin– aberasgarri izan daitekeela azaldu nahi nuen, eta –nik uste– Arabako Foru Aldundiak jauregia konpondu eta berriztatu ondoren, probintziaken historiaren zati bat Villanañeko baronarrenean ikustatu ahal izatea gaurko eta bihar-etziko belaunaldientzat aberasgarria da.

**José Mari VELEZ DE MENDIZABAL**

*Villanañe es un pequeño pueblo alavés situado en la comarca de Valdegobia, que no hubiera sido centro de atracción para los historiadores de la provincia de no haber existido en sus términos la casa de los Varona, cuna de una familia que durante siglos ha aportado hijos insignes a las esferas de la milica, política, religión..., y que todavia hoy en dia guarda con orgullo el legado de tantas generaciones que han habitado el palacio.*

*Como en muchas ocasiones, al tratar de remontarnos en el tiempo en búsqueda del principio de los varonas, nos encontramos con unos pasajes marcados de ciertos ribetes fantasiosos, que hacen que todo lo referente al origen del tronco familiar deba tomarse con extremada precaución, debido al peligro existente de caer en errores sin sentido.*

*Es conocida la leyenda que imputa la razón del apellido Varona a Maria Pérez, quien en tiempos del rey castellano Alfonso VI luchó en su favor en cierta batalla contra el aragonés Alfonso I. Puso tal ardor en el combate que el monarca vencido, al levantar el yelmo de su vencedora y comprobar que era mujer, pidió que no se le llamara en adelante mujer, ni señora sino varón-a.*

*Por otro lado, los primeros documentos sobre la familia hablan de un tal Martin Pérez de Barahona, siglo XII, amigo del rey castellano Alfonso VII. Consultando "Etimologias de apellidos vascos" de López de Mendizabal, podemos leer que los apellidos Barahona, Baraona, Barona son poseedores de una misma raiz, viniendo a significar "helechal".*

*Mas, en mi opinión, lo verdaderamente importante y ejemplar de esta historia no es el comienzo de ella, sino su continuación en el tiempo hasta nuestros dias. Y es que el actual señor de Varona, Rodrigo como todos sus antecesores, ha sabido guardar en su Casa el recuerdo vivo de esta gran historia familiar. Rodrigo Maria de Varona, sin criados ni vasallos que lo hagan por él, cultiva sus tierras como cualquier habitante de Villanañe, pero al cruzar el umbral de su hogar descansa, rodeado de foso y muros almenados, en el edificio que guarda el crucifijo de las naves españolas en Lepanto, el original de la obra de teatro escrita por Lope de Vega "La Varona de Castilla", una colección de obras de Balzac del año (...), la denominada Sala Quijote con mobiliario del siglo XVII y paredes tapizadas con piel de caballo... La sala de la torre, aposento de los señores de Varona, presenta mobiliario inglés de los siglos XII y XIII; la sala de música, el comedor;... son otras de las estancias que pueden ser contempladas... previa invitación del dueño de la casa.*

*En el mes de Junio del presente año la Diputación Foral alavesa adoptó el acuerdo de elaboración de un proyecto para restaurar y acondicionar el edificio, así como la confección de un inventario de todos los bienes históricos, con ánimo de poder, en una fecha no lejana, abrir el edificio al público como Museo. Qué duda cabe que esta medida redundará en beneficio de todos.*